

## / Nabarmentzekoak

- > Badator "Biz-Hitza" ikuskizuna (3. or.)
- > Azkorri eta Julio Caro Barojako ikasleak, "STARTInnova" lehiaketan sarituak (4. or.)
- > "DalecandELA" elkarteak disko solidarioa grabatu du euskal talde nabarmenekin (4. or.)

Muxikebarrin Dantzetiko arte dramatikoko ikasleen arte-egoitza dago (3. or.)



**Odol-emate.** Hilak 15, astelehena, Algortako Geltokia plazan, goizez eta arratsaldez.

**Antzerkia.** Hilak 20, larunbata, 19:00etan, Muxikebarrin, "Losers", Jon Plazaola eta Aitziber Garmendiaren eskutik. Sarrera: 12 €.

A-  
GENDA

Jarduera ugari udalerriko hainbat tokitan

## Loturak Festival proiektuak migrazio mugimenduei, harrerari eta gizarteratzeari buruzko narrazio digitalak eskainiko ditu

Migrazio mugimenduei eta hiriek migratzaileen eta errefuxiatuen harrerari eta gizarteratzeari emandako erantzunei buruzko dokumentu- eta narrazio-genero digitalak eskaintzea izango da datorren martxoaren 17an, asteazkenean, 19:00etan, Romo Kultur Etxean inauguratuko den Loturak Festival-aren helburua. Moviltik elkarteak antolatuta, beste entitate batzuen laguntzarekin, horien artean Getxoko Udalarenarekin, sentsibilizazio proiektuak, Arraza-be-reizkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren (martxoak 21) aurretik, aniztasuna eta kulturartekotasuna oinarri dituen udalerrira eraikitzen jarraitzeko beharrezko diren aspektuei buruzko hausnarketarako aukera eskainiko du.

### Egitaraua

Apirilaren erdira arte, besteak beste, proiektuak errealitate birtualeko tailerrak, solasaldiak, mahain-guruak eta ginkana bat eskainiko



ditu, dohainik, era presentzalean hainbat tokitan eta online, hainbat motatako jendearentzat. Martxoaren 17tik 21era, Romo Kultur Etxean, mahai-inguru batzuk izango dira, besteak beste, Migrazioen Kazetaritzari, beste errealitate batzuen bistaratzeari eta eskubide sozialei buruz, eta ikus-entzunezko lanen aurkezpenak

ere. Gainera, martxoaren 28ra arte Pablo Toscoren argazki erakusketa izango da ikusgai. Bestalde, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, exodo klimatikoaren, bizitza adingabeen eta gerraren inguruko lanak ikusi ahal izango dira. Muxikebarrin hainbat areto bideo joko eta 360º-ko betaurrekoekin saioak egiteko gune bihurtuko dira, eta

apirilaren erdialdera arte kulturarteko Ginkana autogidatua egingo da udalerrian. Azkenik, ostegunean, martxoak 18, 10:00etan, *Carne Cruda* irratsaioa Jaialdiari buruz izango da.

Egitarauari buruzko informazioa: <https://www.getxo.eus/eu/in-migracion> edo [www.loturakfestival.com](http://www.loturakfestival.com).

## Punta Begoñako egitura indartu eta birgaitzeko lanak, hego-eta ipar-mendebaldeko galerietan

Punta Begoña berreskuratzeko eta hari balioa emateko jarduerak ipar-mendebaldeko eta hego-mendebaldeko galerietan egingo dira datozen hilabeteetan. Eraikin enblematiko horren egitura indartzeko eta birgaitzeko lanak egingo dira. Lanek 1.053.721 euroko aurrekontua eta 12 hilabeteko iraupena izango dute, eta ipar-mendebaldeko galeriako 1. portikotik 9.era eta hego-mendebaldeko galeriako 20.tik 30.era bitarteko portikoetara mugatuko dira.

Alde batetik, 20A eta 29 arkupeen arteko galerien zatiaren egitura berregokituko da, hego-mendebaldeko galerian.

Esku-hartzea bi zatitan banatuko

da: eraikinaren kanpoaldetik egin beharreko lanak, beheko horma eta fatxadako arkupea zaharberritzeko, hormigoizko zutabeak eta goiko frontala barne. Eta galerien barruan egin beharreko lanak, hala nola zoru eta sabaiko forjatuen, zimenduen

eta adreiluzko horma banatzailearen errefortzuak.

Fatxadei dagokienez, ipar-mendebaldeko fatxadako 1-9 arkupeak, biak barne, zaharberrituko dira. Aretorearen eremuari dagozkio. Baita hego-mendebaldeko galeriako 20-29



arkupeak ere, biak barne. Bestalde, ipar-mendebaldeko galeriako 1-9 atariak ere iragazgaiztu egingo dira, baita hego-mendebaldeko galeriako lehen tarteko goiko terraza ere, 20. eta 30. atarien artean, eta urak bildu eta beheko bide-mailaraino bideratuko dira. Ondoren, egun dagoen baldosa zolatuko da. Azkenik, zurotzeriako lanak egingo dira; izan ere, gaur egun duen egoeratik galerietako zura altxatuko da, eta horren eraikuntza-definizioa ere onduko da, osorik birgaitzeko.

Egin beharreko jarduketetan, jatorrizko funtzioa errespetatuko da, elementuak eraikitzeke erabili ziren materialak aldatu gabe.



### MARTXOAK 11 OSTEGUNA

**Zinemabarrri.** Muxikebarrin (Areeta aretoa), 18:00etan, Ana Serna eta Paula Iglesiasen "Solo son peces" film laburra, Waad Al-Kateab eta Edward Wattsen "For Sama" luze-metraia,, jatorrizko bertsoan azpitu-luekin, eta foruma. 16 urtetik gora. Sarrera: 3,50 €.

### MARTXOAK 12 OSTIRALA

**Haurrentzako ipuin kontaketa eta tailerra.** "Nirekin konta deza-kezu / Cuenta conmigo", Romoko (17:00-18:00) eta Villamonteko (18:30-19:30) liburutegietan. Euskaraz eta gaztelaniaz. 4-6 urte (heldu batekin). Leku-kopuru mugatua. Izen ematea: [www.getxo.eus/apuntazaitze](http://www.getxo.eus/apuntazaitze).

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Aretoan, ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera. Sarrera doan, leku-kopurua bete arte.

**Zine-kluba.** Romo Kultur Etxean, 18:00etan, Teona Strugarren "Dios es mujer y se llama Petrunya" filmaren proiektzioa eta foruma. 12 urtetik gora. Sarrera: 3,50 €.

### MARTXOAK 13 LARUNBATA

**Dantza.** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, "Biz-hitza", Auke-eran dantza konpainiarekin eta Aitor Etxebarria piano-jotzailearekin. Sarrera: 10 €.

**Ipuin kontaketa:** Storytime. Algortako Kultur Etxean, 11:00etan, "The king's servant", Kids&Us Getxo-Algortaren eskutik. Ingelesean. Familia osoarentzat. Sarrera gonbidapenez: [getxo@kidsandus.es](mailto:getxo@kidsandus.es) / [algorta@kidsandus.es](mailto:algorta@kidsandus.es). Edukiera mugatua.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. "Naturaren de-tekibeak" (6 urtetik gora) eta "Es-ploratzailer txikiak" (3 urtetik gora). 10:00-14:00 Bolueko hezegunetik ginkana 2.0 autogidatua. [www.ingurumenaretoa.getxo.eus](http://www.ingurumenaretoa.getxo.eus)

### MARTXOAK 14 IGANDEA

**Kontzertua.** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, "Desde mi balcón a tu corazón", Andoni Martínez Barañano tenorearekin. Sarrera: 5 €.

**Zinemabarrri.** Muxikebarrin (Areeta aretoan), 12:00etan, "Gusanos". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50 €.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Txiki tailerra. "Egin ezazu zure eguzki erlojua" (6 urtetik gora). [www.ingurumenaretoa.getxo.eus](http://www.ingurumenaretoa.getxo.eus)

### MARTXOAK 15 ASTELEHENA

**Odol-emate.** Algortako Geltokia plazan, goizez eta arratsaldean.

### MARTXOAK 18 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** Algortako Kultur Etxean, 18:00etan, Raúl de la Cruzen eskutik, "¿Maripuzker o Candela? 3-8 urte. Sarrera dohainik, edukiera bete arte.

**Zinemabarrri.** Muxikebarrin (Areeta aretoa), 18:00etan, Alex Garlanden "Ex Machina" film luzea, jatorrizko bertsoan azpitu-luekin, eta foruma. 12 urtetik gora. Sarrera: 3,50 €.

### MARTXOAK 19 OSTIRALA

**Zine-kluba.** Romo Kultur Etxean, 18:00etan, Robert Eggersen "El faro" filmaren proiektzioa eta foruma. 16 urtetik gora. 3,50 €.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Hezegunetik ekintza autogidatuak: "Altxorraren bila" + "Bolueko Esploratzaileak" (6 urtetik gora). [www.ingurumenaretoa.getxo.eus](http://www.ingurumenaretoa.getxo.eus)

### MARTXOAK 20 LARUNBATA

**Antzerkia.** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, "Losers", Jon Plazaola eta Aitziber Garmendiaren eskutik. Sarrera: 12 €.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Txiki tailerra: "Eskulana basoko elementu naturalekin" (4 urtetik gora). Martxoak 21, Basoen Nazioarteko Eguna. [www.ingurumenaretoa.getxo.eus](http://www.ingurumenaretoa.getxo.eus)

**Kafe tertuliak.** 18:00etan, online zoomen bidez. Gonbidatua: Daniela Ortiz. Gaia: Antirracismo. Izena emateko: <http://bit.ly/CafesConversatorios2021>. Zalantzak: Whatsapp: 655 60 38 09. Antolatzailer: Mujeres con Voz.

### MARTXOAK 21 IGANDEA

**Antzerkia.** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, "Ocaña", Pabellón 6 eta Makiescenicaren eskutik. Sarrera: 8 €.

**Zinemabarrri.** Muxikebarrin (Areeta aretoan), 12:00etan, "El rey elefante". Adin guztientzat. 2,50 €.

**Haur zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "El rey elefante". Adin guztientzat. 2,50 €.

**Ingurumen Aretoa.** 11:00-13:00. "Itsasertza eta bere historia geologikoa": Galeatik Azkorriaraino ibilbide gidatua. Martxoak 22, Uraren Mundu Eguna. [www.ingurumenaretoa.getxo.eus](http://www.ingurumenaretoa.getxo.eus)



## 1980-1983 aldian udalerriko alkate izan zen Doluminak F.J. Urrechua heriotzagatik

Amaia Agirre alkateak, Udalaren izenean, doluminak adierazi ditu joan den larunbatean, martxoak 6, hil baitzen Francisco Javier Urrechua Libano, 1980-1983 aldian, demokraziaren lehen urteetan, udalerriko alkatea izan zena.

EAJ-PNVren ordezkariak, 1980an eskuratu zuen alkateza Javier Aguirre ordezkatzeko, zeina Eusko Jaur-laritzako Osasun sailburu izendatu zuten, eta 1983ra arte izan zen karguan. Orduan, Juan Ramón Barquín hautagai jeltzaleak ordezkatu zuen.

Francisco Javier Urrechua Paquico, mediku analista, oso gizon maitatua eta eza-guna izan da, bai Algortan, betidanik bizi izan den auzoan, bai udalerriko gaine-rako auzoetan. Euskara eta euskal kulturarekin konprometitua, San Nikolas Ikastolaren sortzaileetako bat eta lehen presidentea izan zen 1963an.

Pertsonetikiko, batez ere zaur-garrirenetikiko edo gaixoenetikiko, izan zuen konpromisoak eraman zuen azken urteotan bere betiko parro-kian, San Nikolas Bariko pa-rrokian, modu aktiboagoan parte hartzera. Bertan, joan den astelehenean, martxoak 8, izan zen haren aldeko hila elizkizuna. Goian bego.

**\*Garazi Sánchez munduko surf txapelketan.** Getxoko surfilaria ISA Munduko Txapelketarako deialdian sartu da. Txapelketa El Salvador herrialdean jokatu da datorren maiatzaren 29tik ekainaren 6ra. Garazi Sánchezek, horrenbestez, Tokioko Joko Olinpikoetarako plaza bat lortzeko aukera izango du. Hasiera batean, aurtengo udan izango dira Joko Olinpikoak, eta surfaren estreinaldia izango da joko batzuetan.

**\*Hiru domina berri Raspas Arraunentzat.** Areetako klubak bere domina-zerrenda zabaldu du hiru metal berriekin. Zilarrezko bat, Marcos César Moralesek Munduko Indoor Txapelketan lortutakoa, 40-50 urteko master kategorian. Beste biak, urrea eta zilarra, Virginia Diazek eta Maialen Mielgok irabazi zituzten, 2- eta skiff modalitateetan, hurrenez hurren, Banyolesek banku mugikor-reko Udaberriko Openean.

## Adierazpen instituzionala Martxoaren 8agatik

Emakumeen Nazioarteko Eguna pasa den astelehenean, martxoak 8, ospatu zela eta, Udaleko Bozeramaleen Batzordeak ZAINTZA BERTINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintza-ren Krisi Globalean izenburuko adierazpen instituzionala onartu zuen aho batez. Horretan hurrengo konpromisoak hartu ditu Udalak: "Gizartean zaintza antolatze-ko ereduari buruzko eztabaida bultzatzea ikuspuntu feminista batetik abiatuta; analisisa egitea, genero-ikus-puntutik, kolektibo zaurgarrien

egoerari eta beharrezkoen buruz, baita COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premia-azko neurriak martxan jartzea; konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea adingabe-koen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko tokiko zerbitzuentzat, eta Udalen Bertintasun-plangintzetan, espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonek du-ten erantzunkidetasuna", beste konpromiso batzuen artean. Adierazpen osoa: <https://bit.ly/3kWgJ6y>

## Zabalik da eskaerak aurkezteko epea 1.170.000€-tik gora subentzioetan klub eta kirolarientzat

Getxo Kirolak-ek herriko klub-ek eta kirolariek 2021eko diru-laguntzak eska ditzaten epea zabaldu du. Guztira, 1.170.500€-ko laguntzak emango dira. Izan ere, helburua da bertoko klub-ek eta elkarte-ek hala nola banakako txapelketetan parte hartzen duten goi mailako errendimenduko kirolariek euren ohiko jardueratik era-ortorritako gastuak ordaintzen laguntzea. Denboraldiko txapelketetan parte hartzen duten klub-ek eta errendimenduko kirolariek artean 656.900€ banatuko dira; oinarritzako kirol-aren garapenerako 235.000€ bideratuko dira; ekitaldiak antolatze-ko 197.000€; herriko kirolak sustatzeko 55.500€ erre-serbatu dira; eta emakumez-koen kirolaren sustapenerako

beste 25.000€ zuzenduko dira. Gainera, herriko jaietan kirol-jarduerak antolatze-ko (500€), ustekabean sortutako gastuak (100€) eta muturreko kirol-ekian parte hartze-ko jarduerak antolatze-ko (500€) lerroetan gutxi-eneko zenbatekoak egokitu dira. Kopuru horiek handitu ahal izango dira hurrengo hilabe-teen, pandemiaren bilakaer-ara eta sortzen diren behar-rik kontuan hartuta. Laguntza horiek guztiak emateko, zenbait balorazio-irizpide bete behar dira: emakumeen kirola sustatzea, pertsona ezinduentzako jarduerak antolatzea eta klub-ek udalerriko kirol-politikan parte hartzea, eskola-kiroleko programen bidez. Deialdiaren oinarriak: <https://www.getxo.eus/eu/getxo-kirolak>

## Izenematea kaleko jarduera fisikorako

Datorren martxoaren 18ra arte (osteguna), zabalik egongo da hurrengo hiruhilekoan 60 urtetik gorakoentzako kaleko jarduera fisikoren ekimenean parte hartze-ko izena emateko epea. Ekimena Udalak antolatzen du, Getxo Lagunkoia programaren eta Getxo Kirol-aren bidez. Aurretik ari ziren pertson-ek zein berri-ek eman behar-ko dute izena, telefonoz (944-66-00-22) zein aurrez

aurre Romo Kultur Etxeko hirugarren solairuan. Saiok apirilaren 12an hasiko dira eta talde egonkor-rik osatuko dira Algortan eta Romon. Bestalde, datozen asteotan Romo Kultur Etxean, Getxo Lagunkoia-aren barruko beste ohiko jarduera batzuk jarraituko dira egiten, esate baterako, joskera solidarioaren tailerra, oroimen aktiboko saioak edo zine proiektzioak.



**- Garaje partzela bat alokatzen dut** Cervantes kalean, Sener enpresaren aurrean. 85€/hilean. Tel.: 657 031 241.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.

**Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111**

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi-tzari lotutako albisteak eta informazioak ager-tzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: [Ainhoa.Galduroz](mailto:Ainhoa.Galduroz) Zuzendaria: [Javier.Garcia](mailto:Javier.Garcia). Erredaktoreburua: [Itziar.Aguayo](mailto:Itziar.Aguayo). Erredakzioa: [Nekane.Ardanza](mailto:Nekane.Ardanza).

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel.:94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalaprentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprentsa@getxo.eus) Arte arduradunak: [Bostran.Bilbao](mailto:Bostran.Bilbao), S.L. Inprimaketa: [Comeco.Grafico.Norte](mailto:Comeco.Grafico.Norte), S.L.U. Banaketa: [Lantegi.Batuak.Fundazioaren.egunOn.zerbitzua](mailto:Lantegi.Batuak.Fundazioaren.egunOn.zerbitzua) Gordailu legala: BI-388-87

STAFF >

## Udal liburutegien zerbitzuak larunbatetan


Martxoaren 6tik aurrera San Nikolaseko liburutegia berriro zabalduko da larunbatetan, 9:00etatik 13:00era bitarteko ordutegian. Romo Kultur Etxeko liburutegiarekin batera, honako zerbitzu hauek eskainiko ditu aipatutako ordu-tartean: liburu, aldizkari eta nobedadeen bertako kontsulta eta irakurketa; irakurtzeko eta ikasteko gelak; maileguen itzulketa; bazkideentzako ordenagailuak (30 minutu gehienez); eta WiFi irekia. Auto-mailegu-zerbitzua, osasun-egoera dela eta itxita dagoena, laster berriro ere abian jartzea aurreikusita dago.

Bestalde, Villamonteko Kultur Etxeko liburutegia larunbatetan ere zabalduko da 9:00etatik 13:00etara, eta bertan, aipatutako zerbitzuez gain, honako hauek ere eskainiko dira: informazioa, kontsulta eta materialen mailegua eta itzulketa.

Astelehenetik ostiralera, hiru zentroetan zerbitzu guztiak eskainiko dira ohiko ordutegian, 8:30etik 14:30era eta 16:00etatik 20:30era.

## Portu Zaharrari buruzko olio-erakusketa

José Javier Landeta Orivek, Antzezaleak Getxoko Artisten kolektiboko kideak, erakusketa bat antolatu du hilabete osorako, martxorako. Algortako Batzokiko tabernan (Algortako Etorbidea 104) erakutsiko ditu bere lanak. Hainbat formatutako mihise gaineko 16 olio-pintura biltzen ditu erakusketak. Algortako Portu Zaharra eta hango txokoak ditu ardatz. Interesdunek erakusketa ikusteko aukera izango dute lokala irekita dagoen ohiko orduetan, goizeko 8etatik arratsaldeko 8ak arte.



## Martxoaren 28ra arte izango da eta, horren amaieran, eginiko lana erakutsiko zaio publikoari Muxikebarrin Dantzertiko arte dramatikoko ikasleen arte-egoitza dago

Muxikebarrin egoitza artistikoa dago Dantzerti Euskadiko Arte Dramatikoa eta Dantzako Goi mailako Eskolako laugarren mailako ikasleentzat. Ekimena, zentro horren eta Kultur Etxearen arteko hitzarmenaren barruan dago, eta eskolako ikasleekin kalitatezko arte-prestakuntza ematea eta arte eszenikoen sektoreko etorkizuneko profesionalen kualifikazioa bermatzea ditu helburu.

Horren bitartez, Irantzu Uriarte Kultur Etxeko presidentek azpimarratu duenez, "2018-2021 aldirako Kultura Plan Estrategikoaren zenbait ildo abian jarriko dira, esaterako kultura arloko ikastetxe eta kolektiboekiko elkar-lana sortu, gertuko esparruan eginiko lan-artistikoa bultzatu, profesionalen formakuntza sustatu eta kultura eskaintzan arte eszenikoei lehentasuna eman". Egoitza etengabe dago zabalik, 08etatik 20:00etara, eta, horren bitartez, ikasleek beren formakuntzan ikasitakoa praktikan jarri ahal izango dute. Horretarako, lan-egitasmoak gonbidatutako egile profesional baten gidoia erabiliko da eta zuzendari gonbidatu batek ezarritako gidalerroak jarraituko dira. Oraingo honetan, hain zuzen ere, gonbidatutako gidoilaria Patxo Telleria da, eta zuzendaria Mireia Gabilondo.

Egoitza borobiltzeko, ikasleek landu-

tako ikuskizuna antzetzuko da zenbait emanalditan. Eta horietako bi publikoari erakutsiko zaizkio modu irekian Muxikebarrin, martxoaren 27an (17:30h) eta 28an (18:00h). Gon-

bidapenak (pertsoneko gehienez bi) hilaren 15etik aurrera Muxikebarriko informazio bulegoan eta txarteldegian eta Romo Kultur Etxean jaso ahal izango dira.



## Badator "Biz-Hitza" ikuskizuna

Aukeran Dantza Konpainiak eta Aitor Etxebarria musikariak *Biz-Hitza* ikuskizuna aurkeztuko dute larunbatean, hilak 13, 19:00etan, Muxikebarriko Ereaga aretoan. Muntaiak honek hasiera gisa hartzen du munduko hizkuntza guztien historia unibertsala, baina euskara batuaren historia berezia dantzatik kontatu nahi du. Sarreraren prezioa 10 eurokoa da.

## Opera, herri-kantak, boleroak... Andoni Martínez Barañano tenorearekin

*Desde mi balcón a tu corazón* proiektuko abestiak entzuteko aukera izango da Muxikebarrin, datorren igandean, hilak 14, 19:00etan. Proiektu hori Andoni Martínez Barañano tenore getxotarrak bere etxeko balkoitik konfinamenduan zehar eskainitako emanaldietan du abiapuntu. Horien bitartez bere auzokideak ani-



matu eta osasun-langileei dedikatutako txaloei gehitu nahi zuen. Izaera solidarioko disko bat osatu du tenoreak, eta orain kontzertu lirikoaren formatuan iritsiko da jendearengana. Hainbat gai ezagun interpretatuko ditu: operako ariak, herri-kantak, napolitanak, boleroak... Emanaldi-rako sarrerak 5 euro balio du.



Azkorri ikastetxeko ikasleak, 18 urtetik beherakoen lehen saria irabazi zutenak



18 urtez azpikoen mailako hirugarren saria Julio Caro Baroja Institutuko ikasleek irabazi zuten

## Azkorri eta Julio Caro Barojako ikasleak, "STARTInnova" lehiaketan sarituak

Azkorri ikastetxeko bi ikasle taldek eta Julio Caro Baroja institutuko talde batek irabazi dute *STARTInnova* negozio ideien lehiaketaren azken edizioa, *El Correo* egunkariak antolatua, Getxoko Udalaren laguntzarekin, besteak beste. Gazteen artean espiritu ekintzailea sustatzea helburu duen lehiaketa honetan, Bizkaiko eta Arabako Batxilergoko eta Lanbide Heziketako 51 ikastetxetako 1.308 ikasleek parte hartu dute. Guztira 271 proiektu aurkeztu ziren lehiaketara, gehienak pandemia garai honetan

konpromiso sozial handia islatzen dutenak.

18 urtetik beherakoen kategorian, Azkorri ikastetxeko *On travel* izeneko proiektua izan zen. Pablo Muñumer, Ioritz Prieto, Julia Ruiz eta Patricia Salcedok sustatuta, eta Ruben Elortegi tutoreak gidatuta, enpresa honek entretenimenduaren mundua hobetu nahi du, bidaiari bidez, errealitate birtuala erabiliz, museoetara online bisitak eginez, kontzertuak emanez, streaming bidezko ikuskizunak ...

eskainiz. Guztiek ordenagailu eramangarri bat jaso zuten.

Kategoria berean, Jon Cortése, Alaia Robledok, Iker Aldayk eta Ander Martinezek, Julio Caro Baroja Institutuko Agurtzane Atxalandabaso tutorearekin batera, hirugarren saria lortu zuten supermerkatu desberdinetako produktuak erosteko plataforma berrakarra proposatzen duen aplikazio mugikor baten proposamenagatik. Ipad bana jaso zuten sari gisa eta ikastetxeko protokoloagatik bi

ikasle baino ez ziren joan saria jasotzera.

Azkenik, bosgarren saria Azkorri ikastetxeko Aritz Fernandez, Alvaro Fernandez, Izan Frias, Naroa Legarreta eta Ibone Lopategirentzat izan zen, horiek ere Ruben Elortegik koordinatuta. Tourette-ren sindromea (nerbio-sistemaren afekzio bat) duten haurren eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko fundazio bat sortzeko egindako proposamenak tablet bat irabaztea ekarri zien.

## DalecandELA elkarteak disko solidarioa grabatu du euskal talde nabarmenekin

Jaime Lafita getxotarrak sortutako DalecandELA elkarteak euskal eszenako talde garrantzitsuenetako batzuk bildu ditu ELA-Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren aurkako disko solidario bat grabatzeko.

Lafitak berak eta Luis Echevarriak ekoitzi dute *DalecandELA The Soundtrack*, eta 18 abesti originalek osatuko dute horretarako bereziki konposatuak eta idatziak, eta, besteak beste, formazio hauek interpretatuak: McEnroe, Smile, El Inquilino Comunista, Los Brazos, The Fakeband, Still River, Last Fair Deal, Lee Perk, Margo Cilker, Nebraska, Los Retros, The Hornies, Keep Calm, The MarshALS, Ontario, Peter & Velas, Amigos de DalecandELA eta Tresonrock. Talde bakoitzak bere kutsua jarriko dio abestiarri, letraz eta musikaz, AEA itxura gogotsu batetik ikusarazteko. "Musika gainditzeko ahaleginean, zoritxararren aurkako borrokan, itxaropenean eta adiskidetasunean oinarrituko da. Positibotasun- eta baikortasun-mezu bat, lehentasun argi batekin: bizitza dastatzea, edozer gertatuta ere" diote antolaketatik.



El Inquilino Comunista



Last Fair Deal

*DalecandELA The Soundtrack* albuma Digipack eta Vinilo Edición Deluxe formatuetan argitaratuko da, eta plataforma digitaletan eta [www.dalecandela.org](http://www.dalecandela.org) webgunean egongo

da salgai. Bilduma honen argitalpena zuzeneko eramango da, udazkenean, ongintzako ekimen hau osatzen duten taldeek parte hartuko duten jaialdi batekin. Une hau iristen den



bitartean, elkarteak abestietako batzuen bideo klipak argitaratuko ditu eta albumeko hainbat single aurreratuko ditu eta grabazio prozesu osoaren dokumentala editatuko dute, Tio Pete estudioetan eginda, Iñigo Escauriak teknikoki gainbegiratuta.

Dohaintzak eta babesak dira, besteak beste, elkartearen funtsak biltzeko iturriak baina garrantzitsuenak Jaimeren beraren marrazkiekin diseinatutako kamiseten salmenta da, 70eko eta 80ko hamarkadetako ikasle garaikoa, *Blueberry tenientea*-ren komikien estetikarekin. Informazio gehiago: [www.dalecandela.org](http://www.dalecandela.org)